



AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE TRAPAGA  
TRAPAGARANGO UDALA

BIZKAIA

Gaurko egunez, Alkate jaunak behin behineko Idazkaria naizen honen aurrean, honako dekretu hau eman du,

**47/20 DEKRETUA.-** Ireki den espedientearen berri eman ondoren; ikusirik Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak 2019ko azaroaren 21ean aurkeztu zuen eskabidea, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko 2020ko urtarrilaren 26ko Informazio Batzordean jorratu zena; eta ikusirik "Baturik" Trapagarango Merkataria, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak aurkeztutako eskabidea.

Kontuan harturik Administrazio Orokorreko Teknikariak 2020ko otsailaren 14an egindako txostena, zeina hitzez hitz eta osorik onartzen baita ebazpen honetan eta eranskin gisa sartzen, motibaziotzat baliatuz, honekin batera jakinaraziko delarik, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.6 artikulua araberan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ematen dizkidan legezko eskuduntzak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**LEHENENGOA.-** Udalerrri honetako ostalaritza establezimenduak ixteko ordutegia bi (2) orduz luzatzea, luzapen hori establezimendu bakoitzak bere sailkapenaren arabera bete behar duen ordutegiari aplikatuko zaiolarik.

Ostalaritza establezimenduak ixteko ordutegia 2 orduz luzatuko dira data hauetan:

- Inauteri larunbatean, otsailaren 22an.
- Herriko jaietan.
- Gabonetan, 2020ko abenduaren 18tik 2021eko urtarrilaren 6ra arte dauden asteburu eta jai bezperatan.

Interesdunei gogorarazten zaie, 17/2019 dekretuaren 35.1 artikulua araberan, **debekatuta** dagoela edariak hartzea lokalen kanpoko aldean gaueko **23:00etatik** aurrera, 37. artikulua 6. paragrafoan agertzen diren ordutegi orokorraren luzapenak egiten badira ere.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako Bizkaiko Lurralde Zerbitzuari, Bizkaiko Ostalaritza Elkarteari, "Baturik" Trapagarango Merkataria, Ostalari eta Zerbitzuetako Elkarteari eta Udaltzaingoiari.

**HIRUGARRENA.-** Dekretu hau webgunean, bide publikoan jarritako pantaila elektronikoetan eta Udaletxeko iragarki-oholean.

**LAUGARRENA.-** Dekretu honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hogeiko otsailaren hamazortzian.

ALKATEA



Nire aurrean  
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA